



ETXEAN PROGRAMAKO LAGUNTZA PRODUKTU BERRESKURAGARRIEN HORNIDURAREN KONTRATAZIOA KONTRATATZEKO ARRAZOITUTAKO TXOSTENA

AURREKARIAK:

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 6.1.a) artikuluan, Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoari buruz ari denean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak aipatzen ditu eta, horien artean, autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunaren ondoriozko premia pertsonal eta familiarrei aurrea hartzea eta erantzutea.

Bestalde, 22. artikulua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoari buruzkoak, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak aipatzen ditu 2. puntuari eta, horien artean, laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua.

27.2.b) artikulua xedatzen du bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek -22.2 artikuluan araututa daude- bazterketaren, mendetasunaren edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzun dietela. Foru aldundien gizarte zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, eta hala badagokie, Autonomia Erkidegoaren eremuko gizarte zerbitzuei, III. tituluko I. kapituluaren ezarritako eskumen banaketarekin bat etorrira.

41.3 artikulua arabera, foru organoen eskumena izango da, dagokien lurraldean, 22. artikuluko 2. paragrafoan arauturik dauden bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak eskaintzea, zuzeneko ekintza eskumena dela eta Eusko Jaurlaritzaren esku dauden zerbitzuen kasuan izan ezik.

Gizarte Politikako Departamentuaren lehentasunezko helburuen artean dago desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak beren etxeetan bizitzen jarraitu ahal izatea sustatzea eta, horretarako, ezinbestekoa da pertsona horien arreta premiei erantzuteko beharrezkoak diren bitartekoak bermatzea, premiak oinarritzekoak izan nahiz autonomia pertsonalekoak edo bizitza independentekoak izan.

Helburu honekin, 2008ko abenduaren 23an 87/2008 Foru Dekretua onartu zen, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako ETXEAN programako banakako laguntzak onartzen dituen.

12/2008 Legearen ondorioetarako, laguntza teknikotzat joko da autonomiarako mugak prebenitu, konpentsatu, arindu edo ezabatzeko produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro, merkatuan lehendik dagoena edo berariaz fabrikatua.

ETXEAN programaren baitan laguntza tekniko berreskuragarriak eman ahal izateko, ezinbestekoa zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari hornidura kontratazio bat gauzatzea. Horretarako prozedura 9/2017 Legearen, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuenaren 219 artikuluan oinarrituta hartutako Esparru Akordio batean oinarritzen da.



PROPOSAMENA:

Horregatik, **eskatzen dugu abian jartzea**, abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuak arautzen duen Etxean programako laguntza produktu berreskuragarrien horniduraren esparru akordioa kontratatzeko espediente, honako xehetasunekin:

A. Xedea:

Hainbat laguntza produktu berreskuragarriak hornitzea.

B. Sortak:

1. lotea: Laguntza produktuak: altzariak eta higienerako elementuak.
2. lotea: laguntza produktuak: lekualdaketak egiteko tresnak.
3. Lotea: laguntza produktuak: eskailera igogailuak eta garabiak.

C. Iraupena:

- 2019ko abenduaren 31ra arte.

D. Kaudimena:

KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA:

Honela egiaztatuko da:

- Urteko negozio bolumena, azken hiru urtean zehar. Merkataritzako Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresaburuek, egiaztatze horretarako ordezko bide gisa, behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bolumen handieneko urteko negozio kopuruari behar besteko irizteko, ondoren sortaka aipatzen diren kantitateak adinakoa izan beharko du horrek, gutxienez:

- 1 sorta: 100.000 euro.
- 2 sorta: 50.000 euro.
- 3 sorta: 80.000 euro.

KAUDIMEN PROFESIONAL EDO TEKNIKOA:

Ondoren adierazten den moduetan egiaztatuko da:

- 1 sorta: 50.000 euro.



- 2 sorta: 25.000 euro.
- 3 sorta: 40.000 euro.

- Azken hiru urteetan egindako hornikuntzen zerrenda, kontratuaren xede berekoak edo antzekoak direnak, horien zenbatekoa, data eta hartzailea publikoa edo pribatua izan den adierazita. Organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez edo enpresariaren aitortpenaren bidez egiaztatuko da azken hiru urteetan bi lan egin dituztela, kontratu honen xede berekoak edo antzekoak, ondorengo edo gehiagoko zenbateko exekutatuarekin sorten arabera (BEZa barne):

- Enpresak kontratua gauzatzeko zer teknikari edo unitate tekniko (enpresa barrukoak izan nahiz ez), batez ere kalitate-kontrolako arduradunak, dituen jakinarazteko adierazpenaren bidez.

Lizitazailea sorta bat baino gehiagotara aurkezten bada, ulertuko da erakundeak behar besteko kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko duela, eduki ekonomiko handieneko sortarako ezarritako bitarteko eta irizpideak egiaztatzen baditu.

E. Azpikontratazioa:

- Ez da zerbitzu kritiko azpikontrataezinik zehazten.

F. Esleipen irizpideak:

1.- BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 41 puntu

1.1.- Ezaugarri teknikoak eta elementu osagarriak zein ordezekoak sartzea: 19 puntura arte

Eskainitako elementuen ezaugarri teknikoak baloratuko dira (funtzionaltasun zein prestazioen aldera). Zehazki, baldintza teknikoek elementu bakoitzerako ezartzen dituzten ezaugarriekiko egokitasuna baloratuko da, beraien erabilgarritasuna eta elementu osagarriak eta ordezekoak txertatu izatea, administrazioari inongo kosturik eragin gabe.

1.2.- Saldu osteko zerbitzua: 12 puntura arte.

Berme aldian, orokorrean zein lizitazaileek eskainitako eskaintza zabaltzekoan, honako hauek balioetsiko dira, aurkeztutako eskaintzen edukia kontuan izanda:

- 3 puntu, gehienez, kortesiazko elementua uzteagatik (mota bakoitzeko eskaintzen den elementu kopurua adierazita egiaztatuko da). Puntu bat emango da gehienez ere, stock jakin bateko kortesiazko elementuak eskaintzeagatik (alokatuta edo salduta), prozeduran horien existentzia eta kudeaketaren bermea, eta horretara xedatutako elementu kopurua adierazita.
- 3 puntu gehienez, saldu ondoko zerbitzua eskaintzeagatik, berariaz prestatutako teknikari profesionalekin. Egiaztatzeko, langileak eta funtzioak identifikatu behar dira, eta kontratazio modalitateei buruzko informazioa eman behar da, plantillaren egitura adierazita.
- 1,25 puntu gehienez, lantegi propioa edukitzeagatik, eta 0,75 puntu, baldin eta kontratu bat edo gehiago baditu beste lantegi batzuekin saldu ondoko



zerbitzua eskaintzeko. 0,25 puntu balioetsiko da garraio kostuak ordainduta egotea.

- 3 puntu, gehienez, kexen eta erreklamazioen kudeaketagatik: 2 puntu emango dira gehienez konponketak eta matxurak konpontzeko epe laburragoa eskaintzeagatik, betiere zerbitzu propioei edo saldu ondoko zerbitzuari buruzkoak, fabrikakoak izan ezik.
- 0,5 puntu, gehienez, zerbitzu propioen edo kontratatuen prozedura ad hoc bat zehazteagatik, berariazkoa eta egutegi jakin bat duena. 0,5 puntu emango zaizkio produktu bakoitzaren ataltze teknikoei eta eskuzkoei buruzko informazioa aurkezteagatik.
- 1 puntu, gehienez, konponketetarako bermea eskaintzeagatik: puntuazio hori emango zaio berme handiena eskaintzen duenari, eta gainerakoei eskaintzaren arabera.
- 0,75 puntu, gehienez, kosturik gabe, ordezeko pieza osagarriak eskaintzeagatik, zehaztuta eta baloratuta.

1.3.- Produktuen ingurumen alderdiak:

5 puntura arte.

UNE 14001 taldeko araua betetzen dutela egiaztatzea laguntza produktuen egile eta hedatzaile direnek, bai eta ekoetiketak ere (Aingeru urdina, zisne nordikoa, Europako ekiteka ekologikoa, etab.). Egiaztatu eta ponderatutako %20 produktu bakoitzeko puntu bat emango da.

1.4.- Hizkuntza baldintzen hobekuntza (euskara):

5 puntura arte.

Baloratu egingo da euskara ere erabilera eta fitxa teknikoak zein eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuzko eta interfaceak barne, bere kasuan.

2.- FORMULA BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 59 puntu

2.1.- Prezioa:

40 puntura arte

Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintza ekonomikoen balorazioa egiteko, prozedura honi jarraituko zaio:

- 1) Balorazioa unitateko prezio bakoitzeko egingo da. Kontzepturen batean eskainitako prezioa lizitaziokoa baino handiagoa bada, enpresaren proposamen osoa baztertuko da, eta enpresa lizitaziotik kanpo geratuko da.
- 2) Eskainitako prezioetan lizitaziokoak baino handiagorik ez dagoela egiaztatu eta gero, unitateko prezioak banaka-banaka baloratuko dira.

Balorazio hori kalkulatzeko, 0 puntu emango zaizkio lizitazio oinarria berdintzen duen prezioari, eta, hortik behera, % 1eko jaitsierari 2 puntuko gehikuntza esleituta, proportzioan emango da jaitsierari dagokion puntuazioa, gehienekoa 100 delarik, jaitsiera % 50ekoa denean.

X eskaintzaren puntuak (100en gainean) = $2 \times X$ eskaintzaren baja (100en gainean).

Beherapena izanik: Lizitazio prezioa - X eskaintza) / Lizitazio prezioa.

Baldin eta, eskaintzetako jaitsieraren batek edo batzuek % 50a gaintzen badute, balorazioa egiterakoan 100 puntu emango zaizkio jaitsierarik handienari, eta 0

puntu, berriz, lizitazio prezioari. Gainerako puntuazioak bi puntu horien arteko interpolazio bidez lortuko dira.

Ponderazioa:

1 sorta: Laguntza produktuak: altzariak eta higienarako elementuak.

Artikulua	Ponderazioa
14045 Eskubanda eraisgarria (bakarra)	% 11,37
14013 Somier elektrikoa, 90 cm zabalekoa	% 25,23
14014 Somier elektrikoa, 105 cm zabalekoa	% 14,85
14047 Oheari ainguratutako trapezioa	% 1,31
14015 Somier artikulatua, orga goratzaileduna, 90 cm zabalekoa	% 10,66
14046 Trapezio oinarriduna	% 4,95
14051 Eskara-kontrako koltxoi konpresorea S	% 2,70
14052 Eskara-kontrako koltxoi konpresorea L	% 0,57
13071 Dutzako eta komuneko aulki gurpilduna	% 26,75
13054 Bainuontziko eserleku birakaria	% 1,60
Guztira	%100

2 sorta: Laguntza produktuak: lekualdaketak egiteko tresnak.

Artikulua	Ponderazioa
11040 Laguntzaileak gidatzeko gurpil aulkiarentzako motor sistema	% 51,87
11041 Laguntzaileak eramateko gurpil aulkiarentzako sistema berezia	% 3,44
11050 Scooter edo antzekoa S	% 3,78
11051 Scooter edo antzekoa L	% 17,05
11011 Gurpil aulki motorduna, oinarrizko gama	% 15,70
11012 Gurpil aulki motorduna, gama ertaina	% 8,15
Guztira	%100

3 sorta: Laguntza produktuak: eskailera igogailuak eta garabiak.

Artikulua	Ponderazioa
12114 Eskailera igogailua, SC motakoa < 1 m, eta 23 cm-ko mailarako	% 33,65
12117 Eskailera igogailua, OR beldar-kate motakoa < 1 m, eta 35 gradurako	%15,64
11214 Zikoina-garabi mugikor txikia motorduna	% 17,20
11215 Zikoina-garabi mugikor ertaina motorduna	% 4,24
11211 Zutikako garabi txikia motorduna	% 20,81
11212 Zutikako garabi ertaina motorduna	% 8,46
Guztira	%100



2.2.- Elementuen berme-aldi gehigarria eskaintzea:

12 puntura arte.

0,5 puntu emango dira eskatzen den gutxieneko denbora (24 hilabete) gainditzen duen hilabete bakoitzeko.

2.3.- Ordezkaritza:

7 puntura arte.

Donostiatik gehienez 20 km-ra ordezkaritza bat izatea, edota irekitzeko konpromisoa hartzea, ardurapeko adierazpena eginda, esleipena egiten denetik hasita gehienez hilabeteko epean. Ordezkaritza horrek, edozein kasutan ere, beharrezko bitarteko material eta giza baliabideez hornitua egon behar du. Eskakizun horren arrazoiak zera da, kontratua ematerakoan sortzen diren gorabeheren berehala erantzun behar zaiela.

G. Exekuzio baldintza bereziak:

- Lan eta gizarte arloko baldintza eta ingurumen babesaren arlokoak.
- Hizkuntza baldintzak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak.
- Baldintzak azpikontratazioan.
- Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak.
- Informazioaren segurtasunaren esparruko baldintzak.

H. Bestelako xehetasun batzuk:

Ez.

Donostian 2019ko urriaren 9an

Ander Zapiain Usandizaga

Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren arretako zerbitziburua